



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2017KO AZAROAREN 3KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2017.11.03.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.

### Zinegotziak:

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.  
Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **AZTERGAIAK:**

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-Mendiko lanen esleipena.
- 3.-Nafarroako Estatuko Ordezkaritzak jarritako errekurtsioa "estelada" jartzeagatik.
- 4.-Nafarroako Arkitekto tekniko, Aparailari eta Eraikuntza Ingeniarien Elkargo Ofizialak jarritako errekurtsioa.
- 5.-Juan Gonzalez Burguete jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 6.-Juan M. Almandoz Rementegi jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 7.-Jose M. Perez Otaegui jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 8.-Udalbiltzak igorritako adierazpena.
- 9.-Arantzako Guraso Elkarte: diru laguntza eskaera.
- 10.-Alkatearen ebazpenak.
- 11.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.**

2017ko urriaren 6an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2017ko urriaren 31n egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.-MENDIKO LANEN ESLEIPENA.**

2.1.-Udal honek Basarte S.L. enpresak egindako proiektuan bildua diren Ametxoko alderdiko berriro landatzeko lanak esleitzeko gonbidapenak igorri zituen Berdabio Basogintza S.L., Pako Altzuri S.L., Repoblaciones Etxarte S.L. eta Carlos Txoperena Matxikote enpresei.

Lan horien aurrekontua 3.093,85 eurokoa da, BEZ barne.

Pako Altzuri S.L. eta Repoblaciones Etxarte S.L. enpresek ez dutela proposamenik aurkeztuko adierazi dute.

Hauek izan dira aurkeztutako proposamenak:

-Berdabio Basogintza S.L.: 3.031,00 euro, BEZ barne.

-Carlos Txoperena Matxikote: 2.939,16 euro, BEZ barne.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Carlos Txoperena Matxikote enpresari aipatutako lanak egiteko esleitzea, 2.939,16 eurotan, BEZ barne, beti ere aurkeztutako bere proposamena eta Basarte S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, proposamen merkeena delakoz.

3) Halaber jakinaraztea obrak 2018ko otsailaren 15erako eginak egon behar dutela.

4) Ebazpen hau enpresa guztiei jakinaraztea.

2.2.-Udal honek Basarte S.L. enpresak egindako proiektuan bildua diren Bulatxikiko alderdian birlandaketa lanak esleitzeko gonbidapenak igorri zituen Berdabio Basogintza S.L., Pako Altzuri S.L., Repoblaciones Etxarte S.L. eta Carlos Txoperena Matxikote enpresei.

Lan horien aurrekontua 6.823,17 eurokoa da, BEZ barne.

Pako Altzuri S.L. eta Repoblaciones Etxarte S.L. enpresek ez dutela proposamenik aurkeztuko adierazi dute.

Hauek izan dira aurkeztutako proposamenak:

-Berdabio Basogintza S.L.: 6.618,00 euro, BEZ barne.

-Carlos Txoperena Matxikote: 6.550,24 euro, BEZ barne.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Carlos Txoperena Matxikote enpresari aipatutako lanak egiteko esleitzea, 6.550,24 eurotan, BEZ barne, beti ere aurkeztutako bere proposamena eta Basarte S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, proposamen merkeena delakoz.

3) Halaber jakinaraztea obrak 2018ko otsailaren 15erako eginak egon behar dutela.

4) Ebazpen hau enpresa guztiei jakinaraztea.

### **3.-NAFARROAKO ESTATUKO ORDEZKARITZAK JARRITAKO ERREKURTSOA “ESTELADA” JARTZEAGATIK.**

Ikusirik 2017ko urriaren 16an ailegatutako Estatuko Gobernuko abokatuak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (271/2017 prozedura) estelada jartzeagatik Herriko Etxeko fatxadan. Halaber, 29/1998 Legearen 48.4 artikulua araber, espedientea igortzea agintzen da eta 49. artikulua araber jakinarazpen egitea ere.

Aho batez, ERABAKI DUTE:



## **ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

1) Arantzako Udaleko prozesu judizialeko defentsa eta legelari zuzendaritza egiteko Iruñeko Abokatuen Elkargoko letradu diren Marcos Erro Martinez jauna (2075 zenbaki duena) eta Joseba Compains Silva jauna (2287 zenbaki duena) abokatuak izendatzea eta prozedura honetako prokuradore Ana Imirizaldu Pandilla andrea izendatzea.

2) Alkate andreari ahalmena ematea behar diren tramiteak egiteko.

### **4.-NAFARROAKO ARKITEKTO TEKNIKO, APARAILARI ETA ERAIKUNTZA INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAK JARRITAKO ERREKURTSOA.**

Ikusirik 2017ko urriaren 25ean ailegatutako Nafarroako Arkitekto Tekniko, Aparailari eta Eraikuntza Ingeniarien Elkargo Ofizialak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsua (286/2017 prozedura) Martiñonea etxeko teiltua berritzeko arkitekto baten proiektua eta bere elkargoan bisatua eskatzeagatik eta ez onartzeagatik arkitekto tekniko batena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako Udaleko prozesu judizialeko defentsa eta legelari zuzendaritza egiteko Iruñeko Abokatuen Elkargoko letradu diren Marcos Erro Martinez jauna (2075 zenbaki duena) eta Joseba Compains Silva jauna (2287 zenbaki duena) abokatuak izendatzea eta prozedura honetako prokuradore Ana Imirizaldu Pandilla andrea izendatzea.

2) Alkate andreari ahalmena ematea behar diren tramiteak egiteko.

### **5.-JUAN GONZALEZ BURGUETE JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Ikusirik Juan Gonzalez Burguete jaunak aurkeztutako eskaera, Antronpa alderdian dauden haritz amerikarrak, arkaziak eta platanuen probetxamendua egiteko (entresaka, 6. poligonoko 72., 136. eta 137. lur zatietan ).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan Gonzalez Burguete jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

### **6.-JUAN M. ALMANDOZ REMENTEGI JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

**6.1.-**Ikusirik Juan M. Almandoz Rementegi jaunak aurkeztutako eskaera, Bulatxiki alderdian dauden pinuen probetxamendua egiteko (matarrasa, 5. poligonoko 102., 81 eta 82. lur zatietan ).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan M. Almandoz Rementegi jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

**6.2.-**Ikusirik Juan M. Almandoz Rementegi jaunak aurkeztutako eskaera, Egibeltza, Burutza eta Emizarreta alderdietan dauden haritzen probetxamendua egiteko (entresaka, 5. poligonoko 148.,149. eta 153. lur zatietan eta 6. poligonoko 33. eta 273. lur zatietan ).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan M. Almandoz Rementegi jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

**6.3.-**Ikusirik Juan M. Almandoz Rementegi jaunak aurkeztutako eskaera, Bulatxiki alderdian dauden pinuen probetxamendua egiteko (matarrasa, 5. poligonoko 77. lur zatian ).

Kontuan hartuz lur zatia herriko lurra dela katastroan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan M. Almandoz Rementegi jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko eta Mendi Zerbitzuak eginen duen balorazioaren %10a ordaintzeko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

## **7.-JOSE M. PEREZ OTAEGUI JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Ikusirik Jose M. Perez Otaegui jaunak aurkeztutako eskaera, Semearen Borda alderdian dauden pinuen probetxamendua egiteko (matarrasa, 4. poligonoko 66-C lur zatian ).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose M. Perez Otaegui jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

## **8.-UDALBILTZAK IGORRITAKO ADIERAZPENA.**

Carles Puidgdemont presidentek Kataluniako independentziaren adierazpena egin eta gero, erabaki historiko horrek Kataluniarentzat duen garrantziagatik eta baita Euskal Herriarentzat ere duen esanahiagatik, aho batez, ERABAKI DUTE:

Udal honek ondorengo adieraztea:

1) Aitortza erakutsi nahi dio Kataluniako errepublikari.

2) Exijitzen du Kataluniako herritarren borondatea errespetatzea, zeina behin eta berriro hautestontzietan, modu demokratikoan, adierazi den.



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

3) Zorionak ematen dizkie Kataluniako herritarrei, gizarte eragileei, erakundeei, alderdi politikoei eta errealitate hori posible egiten duen orori.

4) Zorionak ematen dizkie bereziki, azken urteotan lan eta lan aritu diren udal hautetsi guztiei, erakutsi duten kemen eta konpromisoagatik. Eredu dira guretzat.

5) Aldarrikatu nahi du Estaturik gabeko nazio guztiek euren etorkizuna erabakitzeke duten eskubidea.

6) Onartzen du Adierazpen hau Kataluniako Generalitat-era, Kataluniako Parlament-era eta Kataluniako Independentziaren aldeko Erakundera (AMI) igortzera.

### 9.-ARANTZAKO GURASO ELKARTEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Arantzako Guraso Elkarteak aurkeztutako idatzia, 2018ko aurrekontuan partida bat izateko eskatuz Eguberrietako eta bestetako haurren ekitaldietako gastuen erdia ordaintzeko.

Ikusirik argitu dela gastua 500,00 euroko izanen dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako eskaera onartzea eta gastuen erdia (250,00 euro) Udalan gain hartzea.
- 2) Akordio hau Arantzako Guraso Elkarteari jakinaraztea.

### 10.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2017ko 135. ebazpenetik 142. ebazpena arte.

### 11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Mentxu Peña Lizarazu and.



